


HISTORIAURREA



HISTORIAURREA

- 1.- Historiaurrea
- 2.- Hominizazio-prozesua
 - 2.1.- Gizakiaren bilakaera
- 3.- Bizimodua Paleolitoan
 - 3.1.- Artea Paleolitoan
- 4.- Bizimodua Neolitoan
 - 4.1.- Artea Neolitoan
- 5.- Bizimodua Metal Aroan
 - 5.1.- Monumentu megalitikoak

1.- Historiaurrea

Historiaurrea gizakiaren lehen etapa da, eta **lehenengo idatziak** agertu ziren arte irauten du.

Hiru etapa daude:

Paleolitoa

Neolitoa

Metal Aroa




2.- Hominizazio-prozesua

Lehen gizakiak **Afrikan** sortu ziren orain dela 5 milioi urte.

Gizakia tximinoetatik dator. Tximinotik, gizakia izan arte, aldaketa batzuk izan ziren:

- Bi oinetan ibiltzen ikasi zuten. Horrela, eskuak aske zituzten lan egiteko.
- Eskuen forma aldatu zitzairen, xehetasun handiko lanak egin ahal izateko.
- Burmuina aldatzen joan zen, modu horretan, gauza zailagoak egiten ikasi zuten, adibidez, hitz egiten.
- Itxura ere aldatzen joan zen, gizaki itxura hartuz.



2.1.- Gizakiaren bilakaera

 Australopithecus	 Homo Habilis	 Homo Erectus	 Homo Sapiens
- Gure lehen arbasoa. - Bi oinen gainean ibiltzen zen.	- Lehen lanabesak fabrikatu zituen.	- Sua egiten ikasi zuen.	- Hizkuntza garatu zuen.

ARIKETAK

- Osatu:

Historiaurrea gizakiaren..... da, eta

..... agertu ziren arte irauten du.

- Non eta noiz sortu ziren lehen gizakiak?

.....
.....

- Irudikatu marrazkien bitartez tximinoetatik bereizten gaituzten lau ezaugarri:

- Lotu:

Homo Habilis

Hizkuntza garatu zuen.

Homo Sapiens

Gure lehen arbasoa izan zen.

Australopithecus

Sua egiten ikasi zuen.

Homo Erectus

Lehen lanabesak fabrikatu zituen.



3.- Bizimodua Paleolitoan

Gizaki hauek horrela elikatzen ziren:

- Animaliak ehizatzen zituzten.
- Arrantza egiten zuten.
- Fruitu eta sustraiak biltzen zituzten.

Leku bateko janaria bukatzen zenean, beste batera joaten ziren; hau da, ez ziren leku finko batean bizi, horregatik **nomadak** zirela esaten da.

Txaboletan edo kobazuloetan bizi ziren.



Sua egiten ikasi zuten: Janaria berotzeko, hotzaz babesteko eta animaliak usatzeko erabiltzen zuten.


Ehizatzekeo behar zituzten tresnak **harriekin** egiten zituzten. Harriak kolpatuz, adibidez, gezi-forma zuten ehizatzekeo tresnak egiten zituzten.

Lanabes batzuk egiteko **hezurrak** eta **egurrak** ere erabiltzen zituzten: arrantzarako amuak, josteko orratzak...



3.1.- Artea Paleolitoan

Kobazuloen sabaietan eta hormetan margotzen zuten. Horregatik, **labar-arte**a deitzen zaio; gehienetan, animaliak margotzen zituzten eta hainbat kolore erabiltzen zituzten.



ARIKETAK

- Ikusi bideo hauek:

<https://www.youtube.com/watch?v=TyFloJ4Esi4>

http://agrega2.red.es/visualizar/eu/es_2007073133_0241700/false

- Zergatik esaten dugu Paleolitoan nomadak zirela?

.....
.....

Non bizi ziren?.....

- Zertaz elikatzen ziren?

1.-.....

2.-.....

3.-.....

- Zein da euren asmakizunik garrantzitsuena?

.....

- Zein material erabiltzen zuten lanabesak egiteko?

.....

.....

-Nola deitzen zaio Paleolitoan egiten zen arteari?

.....

- Zer margotzen zuten?

Mamutak

Pertsonak

Janaria

Umeak


Paisaiak

Ehiza ekintzak

Zaldiak

4.- Bizimodua Neolitoan

Animaliak etxekotzen eta zerealak landatzen ikasi zuten; hori dela eta, **sedentario** bihurtu ziren, hau da, leku finko batean bizitzen hasi ziren.



Hiru aldaketa garrantzitsu izan ziren:

- Harri gogoragoak lantzen ikasi zuten eta, beraz, lanabes hobeak egiten zituzten.
- Zeramika asmatu zuten.
- Ehunak fabrikatzen hasi ziren.



4.1.- Artea Neolitoan

- Gizakiak margotzen hasi ziren.
- Kolore bakar bat erabiltzen zuten.



ARIKETAK

Ikusi bideo hauek :

<http://agrega2.red.es/visualizador-1/es/pode/presentacion/visualizadorSinSecuencia/visualizar-datos.jsp>

<https://www.youtube.com/watch?v=Fx4LnrJ-DZ8>

- Zer ziren Neolitoko gizakiak, nomadak ala sedentarioak?
Zergatik?

.....

.....

.....

- Irudikatu izan ziren hiru aldaketa garrantzitsuak:

- Zein ezaugarri dira Neolito garaikoak:
 - Kobazuloen sabaietan eta hormetan margotzen zuten.
 - Egiten zuten arteari *labar-arte*a deitzen zaio.
 - Gizakiak margotzen hasi ziren.
 - Gehienetan animaliak margotzen zituzten.
 - Kolore ezberdinak erabiltzen zituzten.

5.- Bizimodua Metal Aroan